



(JAÑAIPENA)

*Etxeko poza.*—Teresatxoren guraso eliz-zaleak, lau alaba izan ebezanean, Joseba Deuna bitarteko ebela, eliz gizon bat, mixiolari bat Jaunari eskatu eutsen; baita bialdu be; baña Jaunaren asmoak eztira gure asmoak lakoak, bere bideak bez gure bideen antzekoak-eta, guraso areik pozez bete ebazan mutil koskor biak laster eroan eutsezan Jaunak bañiro bere zorionera. Onela, a etzala Jaungoikoaren naya ikusi eben-eta, ez eben geyago ez elizgizonik ez mixiolaririk eskatu. Baña, a! etorkizunak gordetan eutsena ta alaba maite onek Jaunari emongo eutson aintza ikusi al izan ba-lebe! «Alde gustietan entzun-erazten dauan abots gañatz ta gogordun belguntzari txalogañia ez ete da orain gure Teresatxo? Bere bizitzeak egundo galduko etxeakozan erakarpenak ez al ditu? Amu oneitan agiñak ezarten dabezan gogo gustiak epelkeri ta oben-uretan eztabela luzero iraungo ao batean ez ete diño?» Oi! zoriontsuak bene-benetan guraso areik etorkizuna estalduten eutsen zapia, zapait baten izanda be, jaso al izan ba-lebe! Euren biotzak, Jaungoikoak eurak gura ebena egin eutsela jakiñik, poz andia artuko eben beraz.

Zerutik etorkioen onespén-igali berebizikoa zan Teresetxikia. Eban arpegi edefa bere biotz ta gogo garbien ziñaldari zan. Ta maiteago eben, maiteago! Amak berari lo eragiteko asmetan ebazan erak zoragafiak dira. Axe txikia zan bere burutaziño ta egite gustien elburua. Pozak artu eziñik bizi zan sendia. Ta zer bear eben besterik ondo bizitzeko? Ezer bez. Gizuna zorionaren bila artega egunero dakusgu; ofaitiño nozean bein bakafik beraganduten dau, ludian gitxik



eskuratzen dabena da-ta. Guraso areik, bafiz. etxean bertan euken zorion-itufia.

*Teresatxo gexorik.*—Baña zorientasunak arerio bat dau: ituntasuna; ta sendi artan be, beste enparau askotan lez, zoriona uxatu ta bere ego otzak laster edatu ebazan, ta etxeko gustiak ilun aurkitzen ziran. Zer jaso ete zan? Bizitz-itxaso ontan safi iruntsi bear doguna. Mendul pipilduaz joyan lora-txoa aste batzuk bafu burua makurtzen asi zan. Arpegiko afaskofiaren margoak larutu egin yakozan. Ezpan gofietan ez eban agiri bafe pozkofik; oyu itunak, ayena makalak egi-zan. Guraso ta aitzak egun batetik bestera bizitz aul a erio-tzaren itai zofotzak ebagita ikusi legikielako bildufak geroa-go ta lafiago ipiñi ebazan. Ta danak, goikoak atsegiñen eba-na egiteko gertu egoan afen, biotzak gora jaso ta lora txi-kiak bizitzan iraun eta geixo ori astindurik bafiro bere abar gañean jafi zadin gogoz afen egin eutsoen Jaunari.

Ikerkunde'ko lekaimetxean bizi zan Zelia'ren aizteak au jakin ebanean idatzi eutsen: «Bitartekotzat artu egizue Sa-les'tar Pantzeska gurena, ta nire lobatxoa geixo ortatik ondo urteten ba-da, auferantzian *Pantzeske* bere bigafen izena-gaz deituko yakola eskiñi egiozue berari». Zelia baña bat ez etofen. *Terese* txiripitiñaren seaska gañean auzpaz, aren azken-arnasearen zain egoan, buruari iñotsola: *Pantzeske* deituko yakolako eskintzaria atzenengo itxaropen-izpia galdu daitenean bakar-bakafik egingo dot».

Lufeko osakai ta nora gustietara jota, osagileak zirau-tsen a beteaz, egin alak egiten ebezan umeari egokiozan aringafiak emoten. Baña zerua gor eta lufeko gauzak bera sendatzeko al etxirala zirudian.

Osagileak, atzenez, iñude sendo asafe baten ardurapean jafi, ta aur txikiaren bular-biziak azkartuteko osabiderik one-na aste batzuetarako basefi batera axeak artzen bildutea li-tzakela iñoan. Ama lenengotan etzan eritxi bardiñekoa, iñude baten zainpean bere alaba beratza ipintea ez eban eder eta, baña bere ugatzeko eria zala geixo aren itufia sendatzaleak esan eutsonean, ez eban geyago txitik atera. Oraitiño sen-datzaaleak iñotzen lako iñude sendo ugatz ugaria beriala aur-kitzea etzan ain ezez, ta onen txingi zoragafia bada-ezpada-



ko ume-azle baten ardurara iztea be etzan egoki. Bere kantuan non aurkituko ete eban oldozka ebilela, Alezon'dik ufean zan auzoko «Lañosatxo» eritxon emakume baseñitar bategaz gomutau zan, eta senafari esan eutsan len bait len ara zuzendu zedila, ta onek, emazteak inñotsona egiñaz, biaramonean, eguna argitu baño len, arako bidea artu eban.

Semallé'ra eldu zanean—au zan baseñi aren izena—, Taille sendiko atean ots egin eban; «Lañosatxo»gaitik itandu ta beingoan agertu zan Martin'ek biletan eban baseñitafa. Jazoten yakena adierazorik, jakiñaren gañean ipiñi ebazan etxe artakoak eta, andra aren biotza efukiofa zan-eta, bayetz, lagunduko ebazala, ta albait ariñen Martin'enerako bidean jafi zan. Ofaitiño inñudearen gizona—Mois eritxan—etzan ufean emaztearen mendukoa ta iya ufin joyala bialdu eutson atzetik bere semea bañero etxera biurtu zitzala esaten. «Lañosatxoak» betondo ilunaz diñotso: «Itzul adi, seme, aitagana ta esayok bere jardunari ekin dayola». Ta ba-dafai tapa-tapa bere bidean.

Zelia orduko senafak luzatzen ebala-ta artega egoan. Inñudea etxera zaneke eroan eutson bere alabatxoa; baña len eriotz-agiñetatik bitxi au jagongo ebalakoan ustetsu etofen «Lañosatxo» bera be bildurtu egin zan afen egoera txar estuan ikusita. Eskuetan artu ta bular apur bat emotsan. Zer zan an jazo zana? Lora txikia goxeko eguzki-leñuruak mun eginda lez bizkortuten asi zala eritxon. Baña iribafetxo bat baño etzan izan; laster marguldu yakozan ostera be bere ofiak, ta, eriotzea begietan ebala, azkenengo arnasea noz emongo inñudearen altxoan zetzan.

Zelia, ikaratuta, Joseba Deunaren iduri-aufean belaunbikotu ta afen beroa egin eutson Jaunari; bere naimen guren-gurena egin zedila eskatu eutson, baita alabatxoa ain gozoro il eta onen gazte zerura eroan eutsolako eskafak egin be. Ta, au otoyaren ala! Jauna bere otseñaren biotz eroapentsua ikusirik efukitu zan eta laster saritu eutson eroapen-egitada au.

Ilteko zorian egoan umetxoa, begiak edegita, gexoari arpegi emoten asi zan.

S. ONAINDIA, K. O.

(Jañaitzeko)